

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Panorama iluna

Urtea amaitzear dagoela, balantzeak egiteko tenorea iritsi da. Edozein dela ikuspegi, gauza bat argi dago: pandemiaren irteerari buruzko aurreikuspen optimistak ez dira betetzen ari. Txertoarekin normaltasunera bueltatuko ginela esan zuten eta ez da horrela gertatu. Are gehiago, pandemia gainditze-rik urruti gaude oraindik. Beharbada herrialde botere-tsuetan presa gehiegi zegoen, eta mundu mailako txertoen zentzuzko banaketa egin beharrean, ikuspegi berekoak gailendu ziren, eta orain olatu berriak eta alda-era berriak ditugu. Munduko liderrek ez dute ulertu sal-bazio orokorrik ezean norberaren salbazioa ere ez dago-ela ziurtatua. Eta horrek perspektiba oso iluna ematen dio bestelako erroka globalak gainditzeari, esate batera-ko, larrialdi klimatikoari. Izan ere, joko berdinean ari dira: norberak bere ekono-mia eta bizimodua salbatu nahi du, naturarekin zer ger-tatzen den begiratu gabe.

Pandemiaren berpizte ho-rrek kalkulu guztiak berriku-si beharra ekarri du. Pesimis-moak gora egin du eta horrek bultzatuta, berriz ere, nok bere salbazioa bilatzen du. Lehengai eta osagaiak iristen ez direla-eta, itxaron

beharrean, gehiago eskatzen da, eta horrek defizita area-gotzen du; kontainerrak falta direla-eta, badaezpada ere, gehiago pilatzen dira, eta urritasuna handitu... Komeni da gogoratzea lehenengo metaketa txertoekin gertatu zela eta gaur-gaurkoz inork ez duela zenbaki zehatzik eman erabili gabe zenbat txerto galdu diren munduan.

Iaz banketxeek eta multinazionalak dibidendu gutxi banatu zituzten eta aurtun denbora aurrera joan ahala perspektibak okertzen joan dira. Etekinak hala edo nola osatu beharra dagoela sumatzen dute eta horrek prezio-en igoera bultzatu du. Eta erraza dute, gainera. Merkatu libre batean korporazio handienek agintzen dute eta ahalmen osoa dute prezioak igotzeko. Hori da, hain zu-

zen ere, gertatzen ari dena. Etekinak borobilduko dituz-te, baina jokaldia oso arriskutsua da. Dirua denok onartzen dugun tresna da eta zentzu horre-tan ondasun publikoa da. Horregatik, inflazioa ondasun publiko baten pribatizazio gisa uler daiteke. Izan ere, en-presek nahiko erraz dute egoera kudeatzeko –prezioak igoz– baina herritar xumeek, soldatak eta pentsioak ja-sotzen dituztenek, ezin dituzte euren diru sarrerak abia-dura berdinean igo. Finean, aberastasuna xurgatzeko boteretsuen beste modu bat da, baina kasu honetan ins-titutzio publikoen gaineko herritarren konfiantza honda-tuta geldituko da.

Ez dute soldatek eta pentsioek soilik balioa galtzen, au-rrezkiek ere bai. Boteretsuek euren aurrezkiak inbertitu-ta dituzte, ondare higiezinetan edo inbertsio finantza-

Jokaldia oso arriskutsua da. Dirua denok onartzen dugun tresna da eta zentzu horretan ondasun publikoa da. Horregatik, inflazioa ondasun publiko baten pribatizazio gisa uler daiteke

rioetan. Herritar xumeen aurrezkiak, aldiz, kasu askotan kontu korrontean daude. Gainera, aurreko krisiaren ji-poiaren ostean, ez dago fidatzeko moduko eskaintzarik.

Momentu honetan, merkatuaren printzipioei jarrai-tuta norbera bere interes partikularren arabera ari dela, baina ez da hainbeste aldarrikatu den guztion onura inondik inora sumatzen. Beste behin, demostra-tzen ari da merkatu libreak ez duela balio interes oroko-rra erdiesteko, ezinbestekoa dela estatuaren parte-har-tzea. Hala ere, bazter guztietan estatuen arteko tentsioen gorakada ikusita, ematen du mundu ikuspegi berekoi hori gailendu dela maila guztietan. Eta bost axo-la mundua pikutara badoa. Panorama iluna. •